



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Nuria Rial sopranoak eta Rubén Fdez. pianistak abesti frantsesen errepertorio bikaina eskainiko dute

- Lied Arriagan zikloaren aurtengo edizioari amaiera emango dion kontzertuaren egitarauak Yradier, Granados, Falla, Sorozabal eta eragin galiarra izan zuten penintsulako hainbat lekutako beste egile batzuen melodiak emango ditu ezagutzera.

Bilbon, 2025eko ekainaren 16an- LIED ARRIAGAN zikloaren hirugarren edizioa amaitzera doa. Asteazkenean, ekainaren 18an, denboraldiko bosgarren eta azken emanaldia izango dugu. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta **Nuria Rial** sopranoa eta **Rubén Fdez. Aguirre** pianista izango ditu protagonista.

Oraingoan, Rialek eta Fdez. Aguirrek euren obran Frantziako eragina zuten espainiar Estatuko hainbat lekutako egileen konposizioak biltzen dituen errepertorio bat prestatu dute. Ez da kasualitatea, beraz, emanaldirako *La chanson de ma vie* izenburua aukeratu izana.

Egile askok Frantziarekin zuten harremanari dagokionez, aipatzekoa da bere garaian Felip Pedrell musikologo eta konpositore handiak, zeina musikaren historiara Maisuen Maisu gisa igaro baita, egindako ekarpena. Espainiako musika-tradizionalismoa berreskuratzeaz gain, Europako korrante garrantzitsuekin nahasi zuen. Haren dizipulu guztiek —Granadosek, Fallak, Albénizek, Lamote de Grignonek...—, ia salbuespenik gabe, Parisen eman zuten denboraldi bat, Tortosako konpositoreak gomendatuta. Senaren hiriburuan urte batzuk ikasten eman ondoren, musika-estetiken eraginez eta hizkuntza ezagutzen zutenez, haietako asko «chansonak» konposatzera ausartu ziren, eta pieza horietako batzuk dira Bilboko publikoak kontzertuan entzungo dituenak.

Hain da handia eta ezezaguna konpositore espainiarren abesti frantsesen errepertorioa, ezen material horrekin hainbat errezital egin baitaitezke. Núria Rial ospetsuak, nazioarteko artista handiak, Pedrellen dizipulu batzuen «melodien» aukeraketa bikaina interpretatuko du, baina baita, besteak beste, Rodrigo, Montsalvatge, Mompou, Guridi, Sorozabal, Aita Donostia, Pau Casals, Chapí eta Padilla konpositoreenak ere. Zalantzarik gabe, joan-etorriko musika jai bat izango da.

Hurrengo denboraldian...

Arriaga Antzokiak **Lied Arriagan** zikloarekin jarraituko du datorren denboraldian, ahotsa eta pianoa uztartzen dituzten sei errezitalekin: **Ilker Arkayürek eta Malcolm Martineau** (azaroak 4); **Ferrán Albrich eta Rubén Fdez. Aguirre** (urtarrilaren 27an); **Hera Hyesang Park eta Rubén Fdez. Aguirre** (martxoak 24); **Juan Laborería eta Carmen Santamaría** bere *Norteñas* errezitalarekin (apirilak 14); **Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre** (maiatzak 19), eta **Marisa Martins eta Miquel Ortega** (ekainak 9).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 16 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus